



2. Nola egiten da?

2.4.- Zaintzaren faktore  
kritikoak


## 1. Sarrera

Erakunde batek Adimen Lehiakorraren Unitate bat martxan jartzeko apustua egiten duenean, erakundearentzat interesgarriak diren arloak eta informazio beharrak argi zehaztu beharra dago. Foku interesgarri hauek dira Zaintza Faktore Kritiko (ZFK) izendatzen direnak. Pilula honetan, Zaintza Faktore Kritikoak aztertzen dira, beraien definizio zuzena egiteak duen garrantzia azaltzen da eta faktore hauek lortzeko hainbat teknika aurkezten dira.

## 2. Zaintza Faktore Kritikoak (ZFK)

UNE 166.002 Arauaren arabera, zaintza prozesuaren lehenengo fasea, faktore kritikoak identifikatzea da eta honela definitzen ditu: "erakundetik at dauden gaien bilakaera, erakundearen lehiakortasunerako erabakigarriak direnak: teknologia emergenteak, uneko eta etorkizuneko lehiakideak, merkatuen eta inguruaren garapena".

Ondorengo grafikoan, erakundearen zaintza izan daitezkeen gai posibleak adierazten dira:



ZFKen definizio egokia oso garrantzitsua da sistema eraginkorra izan dadin, erakundearentzat interesgarriak diren gaietan ahalegin berezia eginez.

Zaintza faktore kritikoak definitzeko, erakundeak hainbat metodo erabil ditzake. Hala ere, ohikoenak ondorengoak dira:

- Erakundearen balio-katea aztertu, balioa sortzerakoan faktore gakoak direnak identifikatzeko.
- Erakundearen hainbat arlotako pertsona arduradunekin bakarkako elkarrizketak, arlo bakoitzeko beharrak jaso ahal izateko.
- Brainstorming edo Brainwritting tailerrak egin, erakundearen erabakiak hartzen dituzten pertsonen beraien beharrezkoak defini ditzaten.
- Erakundearen Plan Estrategiko edo Kudeaketa Planera jo eta helburuak lortzeko eragin handiena izan dezaketen faktoreak zeintzuk izan daitezkeen baloratu.

Ikus daitezkeen bezala, ZFKak definitzeko "formula magikorik" ez dago; hurbiltze egokiena, zentzu komunarekin egiten dena izaten da, bai eta informazioa jasoko dutenen beharrak kontutan hartuta egiten dena ere, hau da, erakundearen erabakiak hartzen dituzten pertsonen beharrak kontutan hartuta.